

MALABARISMOA. Animazioak, ikastaldiak eta jokoak izanen dira gaur ere, Baionako Mousserrolles harresietan

Haurrak eta helduak bildu dituzte zirkuaren teknikek esku dantzaren topaketetan

Dozenaka lagunek parte hartu dute lehenbiziko aldi honetan



GARI GARAIALDE

Baionako esku dantzaren topaketetan atzo parte hartu zuten gazte batzuk.

Eneko Bidegain | **BAIONA**

Dozena bat neska-mutil bata bertzearen gainera erori zen, nork daki zenbagarren aldikotz. Katalanen gisako piramidearen osatzea lortu ondoan, hala ere... Haur bat monozikloarekin trebaturik zebilen, bertze bi oreka ezin atxikiz, bortz urteko neskatxa bat aitzak eskutik lagundurik, gazte bat aitzinka eta gibelka zangoak lurrean pausatu gabe. Nonahi baziren hiru, lau edo zortzi pilotarekin esku dantzan ari zirenak.

Baionako harresiek zirku kutsua hartu zuten atzo eta gaur ere giro bera sentituko du bertaratzen denak. Pentzearen gainean jarririk, etzanik edo xutik, aro epel bezain goxoan zeuden guztiak ere, esku dantzaren sakontzen.

Esku dantzaren lehen topaketa horietaz nahiko pozik agertu zen Paxkalin Xabaño Oreka elkarteak kidea. Ehun bat lagunek parte hartu zuten atzoko animazio eta tailerretan. Horietarik anitz haurrak ziren. Etorri ziren guztiak «pixka bat bazekiten». Bakoitzak bere materiala ekarria zuen. Hamar bat tailer antolatatu zituzten orotara. Hego eta Ipar Euskal Herriko, Okzitania, Tolosako eta Bordeleko jendea bildu zen, bai ikasteko eta baita tailerren animatzeko ere.

Bere burua ezagutarazi nahi duen elkarte

Oreka elkarteak duela hiru urte sortu zen. Karriketan zehar ibiltzen hasi ziren eta geroago Hego Euskal Herriko eta Tolosako jaialdietan parte hartu zuten. Aurten beste urrats bat egin nahi izan dute, zirkuazaleak Baionan elkarretaratuz. Datoren urteetan esperientzia hori errepikatuko duten ez dakite, baina aurtengo topaketaren balorazioa baikorra bada, baliteke, Paxkalin Xabaño zehaztu zigunaren arabera.

Oreka elkarteak bere burua ezagutarazi nahi du orain. Mementoan ez dute egoitzarik eta lehenbiziko helburu gisa kokagune baten aurkitzea finkatu dute, «gabe biziki zaila baita

OREKA ELKARTEA

Duela hiru sortu zen eta bere burua ezagutarazi nahi luke orain. Baionako elkarretaratzea beste urrats bat izan da

zerbaiten egitea». Esku dantzaren topaketa horien antolatze-ko diru gehiena elkarteak du aurkitu. Kontzertuak antolatu dituzte horretarako. Gazteriarren eta Kirolaren Ministerioak laguntza zerbit eman die.

Gaur ere izanen dira animazioak eta tailerrak

Gaur goizean oraino gehiago barnatuko dituzte esku dantza-ko teknikak. Atzoko eta gaur goizeko ikastaldien ondotik, jokoak iraganen dira gaur arratsalde guztian. Gainera, esku dantzarien jokoen irabazleek opariak jasoko dituzte. 16:30ean monozikloen lasterketa egingen dute. Ondotik, Eze Le Floc'h konpainiako kide batek *Aeroport* ikusgarria eskainiko du. Horrela bukatuko da esku dantzarien Baionako lehen hitzordua.


Bi egun horietan ez da jostetarako aitzakiarik eskastuko. Atzo jadanik ez zuten eneatzerik izan. Alabaina, tailerren ondotik hainbat ikusgarrirekin jarraitu zen eguna. Annie Fratellini zirku eskolako lau ikaslek beren trebezia erakutsi zuten. Arratsalde bukaeran denak Baiona Tipiko karriketan zehar ibili ziren, musikak lagundurik. Ikasi zituzten akrobaziak harresietatik karrikara erakusteko parada izan zuten. Arratsera buruz nahi zuena igo zitekeen taula gainera bere dohainaren agerrarazteko.

Hori guztia giro anaikorrean eta lasaian iragan zen. Karpabaten azpian ostatua muntatua zuten, eta afariaren ondotik arratsak berant arte iraun beharra zuen, gauerdia aitzin bertze ikusgarri batzuk programatuak baitzituzten: Sutam Tam eta Retruco.

ANDOAIN MAC JEARA'S BAND ETA ALBERTO TARÍN REGGEE JAZZ BAND



EGUNA: ekainaren 16an
ORDUA: 22'30
LEKUA: GOIKOPLAZAN



Antolatzailea: ANDOAINGO UDALA - Urigain Kultura Etxea



TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Tolosako Udalak UDALTZAIN LAGUNTZAILEAK kontratazeko lan-poltsa bat osatzeko asmoa du:

BETEBEHARRAK:

- a) 18 urte beteta eta 30 bete gabe.
- b) Eskola graduatua, lehen mailako lanbide heziketa edo baliokidea ikasketak titulua edukitzea.
- c) Lanpostuaren eginbeharrak betetzeko arazo psikiko edo fisikorik ez edukitzea.
- d) Baldintza hau egiaztatzeko, Tolosako Udaleko Zerbitzu medikuak bidezko den azterketa egingo dio hautagaiari.
- e) B motako gida baimena edukitzea.
- f) Euskara jakitea, lanpostua behar bezala betetzeko neurrian.
- g) Baldintza hau egiaztatzeko, bidezko den azterketa egingo zaie izangaiei, Tolosako Udaletxean, 2001eko ekainaren 20an, goizeko bederatzietan.

BALORATUKO DIRA:

- a) Izangaien prestakuntza, eskatzen diren tituluez aparte.
- b) Tolosan bizitzea.
- c) Lanpostuaren eginbeharrekin zerikusia duten ikastaroak.
- d) Bestelako gida baimenak.

Interesaturik dagoenak Tolosako Udaletxeko Informazioa eta Erregistroan aurkituko du eskaera egiteko orria. Eskera 2001eko ekainaren 18ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira.

Betebeharreko a), b) eta d) apartatuak agiriaren fotokopiak eta balorakizunen a), c) eta d) apartatuen agiriaren aurkeztu behar dira eskaerarekin batera.

Tolosan, 2001eko ekainaren 7an. ALKATEA, Antton Izaguirre Gorostegi.